



Beheko partean merkatal gune handia jarriko da, gainean garajeak eta neurri askotako etxebizitzak ere bai. Irudiko itxura hartuko du Loidi Barrenek.

Babes Ofizialeko 100 etxebizitzaren proiektua dagoeneko prest

Astelehenean, urriaren 27an, Loidi-Barreneko Babes Ofizialeko etxebizitza eta garajeen aurkezpena egin zen udaletxean, Ana Urchueguiak proiektuaren nondik norakoak azaldu zituen.

Abendua eta urtarrila artean hasiko dira Lasarte-Orian babestutako etxebizitzaren lehen parke municipala eraikitzen. Etxebizitzaren ondoan eraikin komertzial bat egingo da eta bertan autoentzako garajeak. Oraindik ez dago etxebizitza horien zozketan parte hartzeko izena ematerik, lehenengo errolda bat egingo da etxebizitzak eskuratu nahi dituztenen profilak eta jende kopurua ezagutzeko. Ondoren, etxebizitza eskuratzeko bete beharreko baldintzak finkatuko dira eta izen emateko epe bat irekiko da. Orduan, bulego berri bat irekiko dute ordutegi bereziarekin. Arratsaldean egingo da irekita lan

egiten dutenentzat erosoagoa izan dadin.

Guzti honen berri aurrerago emango du Udalak oraindik finkatzeke dagoelako. Bestetik, Ana Urchueguiak azpimarratu zuen ez dela etxebizitzaren jabetza emango, 75 urterako utziko direla bai zik, (administrazio-ematea izango da).

Alkateak garbi utzi zuen etxebizitzaren beharra dutenak zeintzuk diren jakin nahi duela lehenengo, horrela, behar gehien dutenek eskuratu dezaten. Alkateak, behin baino gehiagotan errepikatu zuen: "bikotea edukiz gero hobe da binaka apuntatzea, banaka apuntatuz gero logela bateko etxebizitza tokatu daitekeelako".

Proiektua

Etxebizitza mota ezberdinak daude profil desberdinetarako, bakoitzaren egoeraren arabera etxebizitza bat edo beste emango zaio.

Eraikuntza lanak Murias enpresak egingo ditu eta etxebizitza desberdinak egongo dira, lau logelatako 9 etxebizitza, hiru logelatako 30, bi logelatako 48 eta logela bateko 13. Eraikinak ertz modernoak izango du, alde batetik lau solairu altu eta atikoa etxebizitza erabilpenarekin eta bestetik, bi solairu gehiago sotoan: behokoan 65 aparkaleku horietatik 35 trastelekuarekin eta bigarrenean 67 aparkaleku horietatik beste 35 trastelekuarekin.

Merkatal gunea

Elizaren atzean egingo den bigarren eraikinak lau solairu edukiko ditu. Merkataritza gune bat jarriko da bertan, horri lotutako errotazioko aparkalekuak eta bestalde salmentarako garajeak. Irudian ikus daitekeenez beheko solairua merkataritzarako izango da eta goiko gainontzeko hiru solairuetan garajeak egingo dira.

Kalbario bidea berriro zentzuzko bikoitzekoa izango da eta bertan egongo da garajeetarako sarrera. Han kokatuko diren lokalak %20a herriko merkataritza gordetako direla azaldu zuen Ana Urchueguiak. Eraikinaren gainean plaza publiko bat egingo da, etxebizitzaren beheko solairuaren parean geratuko dena. Bertan, jolasteko eta egoteko gunea sortuko da, alderdi berdeekin, haurrentzako jolaslekuarekin eta kirolertarako tokiarekin. Alkateak azaldu zuen Kalbarioko bizilagunekin bildu dela dagoeneko bertako eraberritze lanen berri emateko.

Beste alde batetik, alkateak esan zuenez, Uzturre plaza inguruan dauden elkarte eta dendak Adarra plazan altxatzen ari diren eraikinean kokatuko dira gero. Bertara igogailu eta eskailera batzuen bidez igo ahal izango da elizaren atzeko aldetik horrela erdiko aldetik Sasoetarako igoera errazteko.



Ricardo Ortega, Ingurumen batzordeko buruarekin solasean /4



Elezaharren kontaketa berria argitaratu du Martin Anso kazetariak /8

ANAIK

JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 · Tel.: 943 362386
LASARTE-ORIA

AFARI SOLIDARIOA**Haitirako laguntza**

Hurrengo azaroaren 8an Lasarte-Oriako bi parrokietako Misio Taldeek antolatzen dituzten afari solidarioa ospatuko da, oraingoan diru laguntza Haitira bideratzeko. Fay, Gustav, Hanna eta Ike izeneko hurakanek txikituta utzi dute herrialdea eta han dauden Merzedaria ahizpen bitartez proiektua martxan jarri da. Beasain, Zumarraga eta Ordizian jaki eta eraikuntzarako materialaren bilketa egin dute eta gure herrian afari solidarioaren bitartez, kontainerraren kostuak ordaindu nahi dira.

Afarirako izena emateko azken eguna azaroaren 6a izango da eta horretarako herriko Misio Taldekoekin harremanetan jartzea besterik ez duzue.

DONOSTIAKO BIGARREN INGURUBIDETAKO LANAK**Leherketak**

Donostiako Bigarren Ingurubidearen lanak direla eta, zenbait leherketa egingo dira egun hauetan zehar. Lehenengo datorren azaroaren 6an izango da, N-1 eta Teresategi baserriaren artean gutxi gora-behera 15.30 eta 17.00ak artean. Herritarrek jakinaren gainean jarri nahi ditu Udalak ustekabearen ez harrapatze arren.

EUSKARA INTERNETEN**Elebila bilatzailea**

Duele urtebete sortu zen Elebila euskarazko bilatzailea, eta orain zenbait berrikuntza erantsi dizkiote. Elebila berriak irudi eta sinonimia bidezko bilaketak egiteko aukera ematen du. Irudi bilatzailearen bitartez, erabiltzaileak aukera izango du euskaraz edo beste hizkuntzatan idatzitako testuei dagokien irudiak bilatzeko. Sinonimia bidezko bilaketan erabiltzaileak euskarazko hitz bat idatzi eta bilatzaileak hitz horren sinonimoak ere erakutsiko ditu.

Zerberri.com

Euskarazko lehen albiste bilatzailea da zerberri.com. GoogleNews bilatzaile famatuak eskaintzen duen zerbitzu antzekoa emango du orrialde berriak baina Google-ek egin ez duen bezala euskaraz. Ehun iturritik hartzen dute informazioa orain baina gutxi-gutxi gehiago txertatuko dituzte, horretarako erabiltzaileek proposamenak egin ditzakete.

Herriko argazki zaharrak jasoko dira liburu bat plazaratzeko

TXINTXARRI

Diario de Noticias eta Lasarte-Oriako Udalak herriko argazki zaharren liburua argitaratu nahi dute. Herriaren nortasuna eta garai batean bizi ziren familiak ezagutzeko asmoarekin. Horretarako lasarteoriatarren laguntza eskatzen dute horrelako proiektu bat ezin delako aurrera atera herritarren laguntzarik gabe.

Noticias de Gipuzkoa egunkaria eta Lasarte-Oriako Udalak batera egingo duten proiektua da hau. Herriko argazki zaharrek liburu bat egiteko asmoa daukate, baina horretarako argazki zaharren bilduma egin beharra dago lehenago.

Lan hau egin ahal izateko herritarren laguntza eskatu dute. Horrelako ekimen bat aurrera ateratzea ez da gauza erraza argazki asko bildu, tratatu eta hautatu behar delako. Beraz, bultzatzaileek herritarren parte hartzea eskertuko dute.

Herriarentzako liburua

Liburu herrikoia bat argitaratzeko helbururekin hasiko dute ekimena, hau da, herriaren eta bertako familien garai bateko izaera jasotzeko.

Horretarako herritarren parte hartzea beharrezkoa da, beraiei esker eta lasarteoriatarren argazkiekin herriaren



Argazki zaharrak Kultuexera eraman daitezke azaroak 21a baino lehen, goizetan 10etatik 13etara bitartean.

benetako nortasuna isladatu ahal izango baita.

Orain arte sekula argirik ikusi ez duten argazkiak jaso nahi dituzte liburuan, horrela garai hartan bizi zirenek euren bizipenak kontatu ahal izango diezkiete gainontzeko-iei irudi bidez, eta gazte askok herriaren aspaldiko itxura ikusko du lehenengo aldiz.

Lasarteoriatarrek inoiz

izan ez dituzten argazkiak eskuratu ahal izango dituzte beste herritar batek liburuaren plazaratzean parte hartu izanagatik.

Argazki bilketa

Zeure argazkiekin liburuan parte hartu nahi izanez gero azaroaren 3tik 21era arte utz ditzakezu kulturetxean goizeko 10:00etatik 13:00a bitarte.

Argazkiak kalitate altuan digitalizatuko dituzte eta ondoren berriz ere jabeen itzuliko zaizkie.

Ez da horrelako zerbait egiten den lehenengo aldia adibidez Hernanin, Tolosan eta Deban dagoeneko argitaratu dira horrelako liburuak eta bertako herritarren laguntza eta parte hartzeari esker izan da. •



Berez toki ikusgarriak dagoen eta dotorea den hilerria, are ikusgarriago eta dotoreago zegoen larunbatean.

Loreak utzi gaituztenak oroitzeko

Urtero bezala lore sortaz bete zen hilerria larunbatean, azaroaren 1ean, Santu Guztienguean. Herritar askok eraman dituzten kolore eta itxura desberdineko lore sortak euren senditarteko eta lagunen hilobietara, beraiek gogoan dituztela adierazteko.

Aurten Domu Santu eguna larunbata zen, zubirik egiteko aukera gabe eta eguraldia ere bikaina egin zuenez beste urte batzuetan baino jende gehiago hurbildu zen kanposantura.

Illarraltzuetarako bidean batez ere goizean zehar etengabea izan zen herritarren joan etorria. Lore saltzaileek ere urteko egunik borobilena izan zuten. •

Ostiralean irekiko da Gazte Kluba

- 9 eta 12 urte arteko haurrak ostiral arratsaldero elkartuko dira Amaraun ludotekan.
- Jolasak, tailerrak, irteerak, festak... denetarik egingo dute bi ordutan, 17:30etik 19:30era

TXINTXARRI

Datorren ostiralean azaroaren 7an jarriko da martxan Gazte Kluba. Aurreko urteetan bezala, 9 eta 12 urte arteko haurrentzat dago zabalik. Nahi dutenak ostiral arratsaldero elkartuko dira Amaraun ludotekan hainbat joko, jolas, eta festa egiteko. Doan da eta zabalik dago izena emateko epea. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara bitarteko haurrek eman dezakete izena ekimean. Ostiralero arratsaldeko 17:30etik 19:30era bitartean, tailer, ikastaro, karaoke, jolas eta abarretan arituko dira. Aurten ere, iaz bezala film labur bat grabatuko dute eta Lasartetik kanpo irteeraren bat ere egingo dute.

Udazkena iristearekin batera, berriro Gazte Klubean elkartzeko eta lagun berriak egiteko aukera dute Lasarte Oriako 9-12 urteko arteko haurrek. Hurrengo ostiralean, azaroaren 7an hasi eta ikasturtean zehar izango da zabalik Amaraun ludotekan iaz bezala ostiral arratsaldetan.

Ainhoa, Adriana, Sara eta Haizeak kontaktu digute iaz nola ibili ziren. 9 edo 10 urteko neskatxo hauek oso oroitzen dituzte iazko Gazte Klubaz: arratsalde politak pasa zituzten eta lagun berri batzuk egin. Lehenengo biek, Ainhoak eta Adrianak ez dute zalantzarik, aurten ere Gazte Klubean izena emango dute. Beste biak, Sara eta Haizea, saskibaloian aritzen dira eta aurten entrenamendua ostiralean dutenez ez dakite seguru izena ematerik izango duten, baina gustura joango lirake. Izan ere, oso ondo ibili ziren iaz Gazte Txokotan eta aurten ere gogoz dira beraietan parte hartzeko.

Film laburra

Iaz burrututako ekintza berezien artean gogokoena film laburraren grabaketa izan zen. Lau gaztetxoek oroitzen onatzen zuten 18 minutuko beldurrezko filmarekin. Gero Jalgin estreinatua eta guraso zein lagunek euren lana ikusi ahal izan zuten.

Aurten berriro egiteko aukera izango dute Gazte Klubean ihardueratuko bat izango baita. Iaz nola egin zuten kontaktatu digu Haizeak: "Lehenengo prestatu egin genuen, guztion artean per-



Ainhoa, Adriana, Sara eta Haizeak iaz oso ondo pasa zuten gazte klubean. Ostiraletik aurrera zabalik da eta denetarik egiteko aukera izango dute.



Gazte Klubean 9 eta 12 urte arteko neska mutillak elkartzen dira jolasteko.

tsonaiak banatu eta gero kalean grabatu genuen. Bakoitzak zati bat".

Aktoresak izango al diren galdetuta, baietz diote, lehen pausua eman zuten iaz eta aurten berriro jarriko dira kamararen aurrean.

Jolasen artean dudarik

gabe Altxorraren bila aukeratu dute lauek. Iaz oso ondo pasatu zuten joko honetan. Jolastu egiten dute batez ere, bi orduko tartean, baina bada toki eta denborarik beste ekitaldi batzuentzat. Esaterako karaokea ere gustuko dute.

Gabonetan egin zen festa

ere gogoan dute. Merienda-txoa egin zuten Ludotekan bertan. Beste batzuetan irteerak ere egiten dituzte. Esaterako iaz izotzetan patinatzen ikastera joan ziren denak elkarrekin edo bizikletak hartu eta inguruak ezagutzera.

Besteak beste, festak, tailerrak, ikastaroak eta irteerak aurten ere denetarik prestatu dute ludotekako arduradun eta begiraleek. Azken finean, 9 eta 12 urte arteko herritar haurrentzat, Gazte Klubean gauzarik politena, bertan sortzen diren harremanak dira. Lagun berriak egiten dituzte, herriko beste ikastetxetan ari direnak. Hori ere gustuko dute. Gero, Gazte klubetik kanpo ere harreman horiei eusten die, lagunak dira jada ikastetxe ezberdinetakoak diren arren.

Epea zabalik

Esan bezala, 9-12 urteko gaztetxoentzat irekita da Gazte Kluba, LH3 eta LH6 maila artekoentzat. Ostiralero arratsaldeko 17:30etik 19:30era egingo da zabalik Amaraun ludotekan.

Izena emateko ez da ezer ordaintzen. Soilik, parte hartu nahi duenaren argazi bat eta Osakidetza txartelaren fotokopia eraman behar dituzte Amaraun ludotekara eta han izena emateko orria bete. Jakina da, Amaraun ludoteka Ola kaleko lehen zenbakian dagoela. Beheko solaioruan (943371448). •

Ricardo Ortega Ingurumen Batzordeko lehendakaria

“Zabor deitzen dugun material asko, ez da zaborra, baliabidea baizik”

Ricardo Ortegak pisua du Lasarte-Oriako Udal Gobernuan. Ezker Batua Berdeak alderdiko zinegotzi bakarra da eta bi batzorde zuzentzen ditu. Batetik euskara batzorde burua da eta bestalde Ingurumen, Merkataritza, Kontsumoa eta Sanitatea batzordekoa ere bai. Gainera San Markos Mankomitutako lehendakaria da, hau da, Donostialdeko hiri hondakinak biltzea eta tratamenduz arduratzen den erakundeko buru, izakio irailtik.

Jon ALTUNA

San Markos-eko zabortegia duela gutxi itxi dela eta Ricardo Ortegarekin egon gara. Lasarteorriarrak oso gertuak ezagutzen du zabarren biltzea eta tratamenduarren arazoa.

Jakina da zaborrak erretzearen aurka eta beste irtenbide batzuen aldekoa dela. Honez eta ingurumenarekin lotutako beste hainbat arloetaz mintzatu gara berarekin.

San Markosen jada zaborki ez pilaetzea “denontzako oso notizia ona izan da” Ricardo Ortegarekin iritiz. “Horrek zer pentsatu eman digu denoi, honelako azpiegiturarik eta honelako zabortegirik etorkizunean eduki behar ez izateko. Jakina, holako azpiegiturak izan dira horrelako kudeaketa aurrera ematen delako, hau da, orain arte dena nahastuta biltzen zen, zabortegira bota eta kito. Azkenengo urtean pausu handiak eman dira birziklapen mailan. Momentua da arazoari adarretatik heldu eta benetako irtenbide bat emateko. Gure ustea, biltzea sistematan dago gagoa eta horri heldu behar digu”.

laztik aurreikusita zegoen itxiera eta jada gehiena beste zabortegiara eramaten zen. Orain jada ez da ezer botatzen San Markosen eta gerora burutuko da berreskuraketa planingintza. Ortega berak aitortu digu hori “urte askotako lana” izango dela.

Adostuta zegoen aldi batean segituko zuela zabortegiak: alderdi birtuen planetan sartzen den eruasategia edota aurka dauden alternatibak jarri bitartean zabortegiaren bizitza luzatuko zutela erabaki zuten, baina uste baino lehen itxi dute. Dena den, Ricardo Ortegaren iritiz, “arazoa ez dago konponduta: zaborra, lehen San Markosen isurtzen zena orain beste zabortegi batzuetara eramaten da. Horrekin ez dugu ezer konpontzen, beraz sortzen dugun zabor

kopuria murriztu behar dugu, zabor horietan dauden gauza birziklagarriak errekuperatu eta behar den tratamendua eman. Horretarako biltzea da gagoa”.

Zein iritzi duzu erausketari buruz eta zein da zure ustez zaborrak biltzeko tratamendu onena?

Errausketaren aurkako nire iritzi ezaguna da: bai osasun arazoengatik, bai ingurumen arazoengatik eta bai arrazoi ekonomikoengatik. Azken hau agian ez da horren erraz ikusten, baina, botatzen diren material asko, beraz erretzen diren material asko, birziklatu daitezke eta berriro produktatu egin behar badira horrek dakarren energia gastua askoz handiagoa da nabarmen.

Gainera erausketa planta bat jarriz gero, seguru asko inbituzioak eta oro har hiritarrak birziklatze saiatze lan horretan, lasaitu edo arazoarekin ahaztu egingo dira: Zaborra sortzen den neurrian desagertarazten baldin bada, emango du hori arazorik ez dagoela. Eta hori ere ez da.

Alternatiba zein den? Zaborraz ari garela, beti, hiru erre faktuak dira onarria, reducir, reutilizar y reciclar. Gaur egun kaleetan jartzen diren edukiontzietan jasotzen diren materialak, gutxi gorabehera, ehuneko 20an dabilza eta atez ateko biltzea jartzen den tokietan jasotako duten arabera, lortzen diren birziklapen tasak ehuneko 80ra iristen dira. Beraz hortik joan behar dugu.

Zaborra deitzen dugun material asko ez da zaborra, baizik eta birziklatzeko moduko errekurtsoak dira. Momentu honetan zabortegiak lana- rengatik oraintzen diren tasak edota erastez batera erama-teagatik oraindik diren tasak aurrezko genituzke eta bestaldez, birziklapenaren bidez sortzen ditugun materialak, jaso ditzaizkegun irabaziazkin ditugu. Horregatik esaten nuen ekonomikoki ere merezi duen alternatibak direla.



“ Birziklatzen ditugun hondakin kopuruaren iguera moteldu egin da azken urteotan. Horrek esan nahi du, edo nik behintzat horrela interpretatzen dut, gaurko sistemaren bidea laborra dela, agortua dela, ez esatearren, eta datuek beste sistema bat eskatzen dutela.

Usurbilen jada jartzear da atez ateko zabor biltzea. Bertako alkateak dio ikusiko dela ez dela erausztegiaren beharrik...
Ni ere iritzi berekoa naiz. Gure hitza da baina beste toki batzuetan ikusi dugulako esaten dugu. Gu ez gabilza ezer asmatzen. Beste toki batzuetan ongi funtzionatu den sistema da, eta horregatik hona erabaki nahi dugu. Baina, ulertzen dut jende asko eszeptiko xamarra izatea.

Lasarte-Oriaren kasuan, jada marbotu onartu zen Udalean babes handiarenkin. Alderdi gehienak atez ateko jartzearen alde...
Gehienak ez, guztiak, PP izan ezik eta ez zelako pleno hartara joan. Denak batera botatze gure genituzkean baldin.

Zein asmo duzue edo zertan gauzatuko da batasan hori?
Udal batzar hartan erabaki zena, laborbiliduz, zera izan zen: alde batetik, herritarren artean zaborraren inguruko inkesta zabal bat egin, zer nolako ezagueria, jarrera,... duela eta herritarren ikuspegi-

tik gaia nola ikusten den jakiteko, eta bestalde, horren arabera esperientzia pilotu bat martxan jarriko zela. Inkesta martxan jartzeko lanean ari gara, aurrean hasterako asmoa dugu, datoren urtean esperientzia pilotuarekin osatuko.

Erabaki gabe dago zein inguru edo auzotan egingo den proba hori, baina pentsatzen dugu toki esanguratsu batean izan behar dela, gutxi gorabehera herriaren adierazgarri den inguruan. Gero hurrengo pausua eman eta egitasmoa herri guztiara zabaltzen aurreko esperientzia baliagarria izan dadin. Bi mila lagun ingururen jokabidea aztertzea nahi da.

Beraz, Usurbil eta Lasarte-Ori aitzindariak izango dira arlo honetan?

Interesa, gogoia edo asmoa erakutsi duten beste udalerritatzuk egon badaude. Baina, noski, hemengo esperientzia erabakiora izango da. Hemen gauzatzen baldin bada gero zabaltzea, askoz errazagoa izango da. Usurbilgo esperientzia baliagarria da, baina herri txikia da, beraz Lasarte-Ori-

arelako esperientzia marban jartzea askoz interesgarriagoa izan daiteke inguruko beste udalerritatzuei begira.

Aipatu duzu ehuneko 80 erre-kuperatu nahi dela. Zein da atez ateko biltzetaren helburua?
Nik uste dut guztiok Kataluniako esperientzia daukagula buruan. Badute elkarte bat, eta bertan hainbat udalerritatzuk alkatetxek esan dutenez, marban jarri zuten egunen, jada lortu zuten ehuneko 20ko erre-kuperazio tasa horietatik ehuneko 70-80ko tasatera pasatzea.

Araoa zein den jakina da: Batetik edukiontziak kaleetik kentzen diren momentutik iman efektua desertu eginen dela, hau da, egun edo zertan zabor edukiontzien ondoan utzi eta nahiko diskreto gertatzen da, baina kentzen direnean, nahiko nabarmen gertatuko da zure etxe aurrean zabor desegoki hori.

Bestalde, hiritarrei alde aurretik ondo esplikatzeko baldin bazaez zer dagoen jokoan, lehenago aipatu ditugun maila horietan, osasuna, ingurumena eta ekonomia arloetan, nik

“ 2009ari begira aurrekontu parte hartzailea jorratzeko asmoa dugu. Benetan zaila da. Orain arte, nahiz eta ahalagintza handia egin, parte hartzea beti txikia izan ohi da.

uste gauza propio bezala hartuko dutela eta kontratuko direla bereizteko hori etxeetan egiteak eta material ezberdinek zaborraren behar den bezala jartzeak zein onura daukan.

Beti badira batzuk inopian daudenak baina oro har ikusten da herritarrek zein portaka duten. Gero eta gutxiago izango dira honetaz arduratu edo kezka erakusten ez dutenak.

Ba al duzu sortzen dugun hondakin kopurari buruzko datu-rik? Gora al doa? Ala egingo diren kanpainen eraginari esker beharritza?

Dauzlagun datuen arabera, alde batetik etxeetako zaborra daukagu eta bestalde denda, industria, taberna,... eta abarretakoak. Ikusi dugu azken urte hauetan birziklapenerako edukiontziaren igoea bat egon dela, gero eta gehiago jasotzen da. Jarri eta lehen urteetan igoeak ikusgarriak izan ziren. Behin maila batera iritsi eta gero, igoea iritsi zaio, baina ez da hain nabarmena izan. Daukagun sistemaren jarraituz gero, hor ez dago gauza handirik egiteko.

Bestalde, ez da bakarrik etxeetan sortzen den zaborra, bada industriarik sortua ere, eta hori krisiak, bilaera ekonomikoak ere eragina dauka: krisi ekonomikoak beraz txarra izan arren arlo honi begirituz positi-ba izan daiteke, sortzen diren zaborrak gutxiago direla.

Iazko irailitik zaude San Markos-en buru, ez ikasi duzu orduetik? Pertsonalki baliagarria izan al da?
Hain ikusten da politikoki sentibilitate ezberdineko jendea dagoela, herri ezberdinak, tamaina eta hiri-topologia aldetik, eta horren arabera normala da desadostasunak egoeta pro-

posatzen dugun biltzea sistema honekiko. Printzipioz herri txikiak onartzeko askoz errazagoa izango dela dirudi,... baina hala ere ikusi dugu alderdiek hartu duen jarrera ofizialaren gaitetik badagoela sentibilitazio maila on bat.

Esate baterako, Astigarragan PNVkoek jarraera zabal dauka, eta beste toki batzuetan partidu berdinekoak izanda beste jarrera bat. Hemen partiduen dinamikaren gaitetik ematen duena baino aukera gehiago daude. Hainbeste herri mota eta partiduen oreka biltzea konplikatu da.

Gaiaz aldatuz, mugikortasun astea zer moduz joan zen?

Oso positiboa da balorazioa. Aurtengo protagonisten hiribusa izan da, milaka bidaiaria egin dira, erakutsi du badagoela herritarren behar edo interes bat horrekiko: Auzo batzuetako bizilagunek benetan eskertu eginen dute hori eta era berean eskatu egingo dute etorkizun-ner zerbizua jartzeko.

Nik uste egin den ibilbide hori, agian aste batean eta doan mantendu daitekeela. Gero aldatuko da erabiltzaile kopurua, hori txartelaren prezioarekin oso lotuta egingo da. Diputazioarekin negoziatu beharko da, badirudi diru laguntzak izango direla, baina dena ikusteko dago.

Batetik hiribusa baten zerbizua dago eta bestalde, inguruko udalerritatzuei ezberdinek loturak, eta hor ere iritzi ezberdink daude. Udal batek agian Urnieta-Hernani-Lasarte-Usurbil ibilbidea jarri behar dela esango du, beste batek Astigarraga lotu behar dela Lasarterekin edo ospitaleara zerbizua jarri,... izango diren kontutan izanik eta Diputazioaren jarrera baihorra dela ikusita, seguru aski hurrengo urtean

zerebit jartzeko aukera egingo dela uste du, nahiz eta egoera ekonomikoak ekarriko dituen murrizketen beldur naizen.

Udalak bi erabaki interesgarri hartu ditu, gutxiago kutsatzen duten autoen zerga txikitzea eta hutsiak dauden etxearen handitzea. Zer derituzte?

Autoen gain gahegi ez dago egiteko. Aurten jarri dira indarrean zirkulazio zergarekin batera neurri batzuk, eta Lasarten pentsatu dugu sustatu behar direla. Jendeak auto berri bat erosterakoan pentsa dezala ekologikoak ekonomiko onura izango duela, nahiz eta zerga autoak duen kostu osoaren parte txiki bat izan eta bere eragina mugatua. Norabide horretan laguntzek merze duela uste dugu.

Eta etxe hutsena?

Ingurugiro aldetik interesgarria da. Etxebizitzak behar dira, batzuk eraiki beharko dira, horrek dakarren kostuekin, eremu barrien erabilera,... Beraz sozialki edota ingurumenaren aldetik nahiko nabarmena da hutsiak dauden etxebizitzak merkaturatzearen beharra.

Beste arazo askotan bezala, egin behar dena zera da, makila eta azerarioaren: Eusko Jaurlaritza Bizigune programak estimulo ekonomiko nahiko inportanteak ematen ditu, baina hala eta guztiz ere lortzen ari diren etxebizitzak ez dira esperio zitezkeen beste. Beraz, batzar nagusiaren arau foral bat onartu zenez hutsik dauden etxe bizitzegaineko lBI zergari erreagokoak jartzeko, oraindik ez da behin betiko erabakia, baina guk adierazi dugu gure adostasuna eta prest dugu gure ordenantza momentua iristen denean aplikatzeko.

Beste Ricardo Ortegak bat bazen, gerrako korrespondentzia, Irak-eko gerratik kronikak bilduzten zituen kazetaria gero Haitin tironeka batean hila. Aitzakia honenkin, munduaren egoerari buruz duzun iritzia jakin nahi nuke? Krisi garaia,... nola ikusten duzu?

Bat batean iritzi zaigun krisi ekonomikoak nik uste agerian utxi duela zabor arte askotan esan duguna, hau da, garapen eredu hau ez dela jasagarria, kapitalismoak ez daukala zentzurik eta ez dituela arazoak konpontzen baizik eta areagotu edo okertu egingo dituela, eta ongi etorria izan dadila krisia, baldin eta beste bide batetik j otea lortzen badu-

Indartsu abiatu da Ttakuntronik

- Larunbatetik igandera gaueko ordu txikietan dantzaleku bihurtu ziren zirkuituko lokalak
- Grassmann, SyR & Des eta imanolo costas disko jartzaileek eman zioten hasiera denboraldiari

TXINTXARRI

Larunbat gaueko azken orduetan eta igandeko lehen orduetan dantzaleku bihurtu ziren Ttakuntronik zirkuituko tabernak. Giroa, piskanaka joan zen berotzen eta orduak aurrera egin ahala dantzan hasi ziren zirkuituko tabernetan elkartu ziren herritarrak eta kanpotik etorri zirenak. Antolatzaileak ere gustura ziren batean eta bestean.

Larunbat gauean Lasarte-Oriako tabernetan ibili zirenek Ttakuntronik zirkuituko denboraldi hasiera ikusteko aukera izan zuten. Eta ez zen makala izan. Jalgi, Obelix eta Siglo XX tabernetan denetari-ko jendea bildu zen, banaka, bikotean eta talde handitan hurbildu zirenak ere bai. Hasieran Grassman, imanolo costas eta SyR & Des disko jartzaileen inguruan zeudenak dantza egiten bazuten ere, orduak pasa ahala taberna osora zabaldu zen giroa.

Jalgin Alain Grassmann Lasarteko Afrogrooves-eko Djak denetari-ko musika jarri zuen Jalgi-ko oholtzatxoan. Abesti guztiek zuten ezaugarria, dantzatze-ko musika alaiak izatea zen. Hasieran oholtzan bakar xamar izan bazen ere gerora gero eta



Imanolo costas DJ Siglo XX tabernan aritu zen musika jartzen eta DJ SyR & Des berriz Obelix tabernan. Beraien inguruan hainbat lagun dantzan.



jende gehiago zen bere inguruan eta urruti zeudenak ere dantzatzen zuten.

Imanolo Costas, ElectroDonostikoak zenbait lagun izan zituen uneoro bere inguruan dantzan, Siglo XX tabernako txokoan.

Obelix tabernako ezker bazterrean bi disko jartzaile aritu ziren DJ SyR & Des Old School-ekoak. Biak elkarrekin, eskuz esku edo buruz buruz, bien artean bertaratu zirenak dantzan jarri eta edeki ordezkatu zuten disko bat grabatzen ari zela eta azken orduan etortzerik izan ez zuen Jaula de Grillos taldeko DJ Ka. •



Grassmannek hainbat eratako musikak nahastu zituen gauean zehar eta azkenerako Jalgin zirenak dantzan jarri.



Tolosako Abesbatza lehiaketa Lasarte-Orian

Urtero legez, Lasarte-Oriako Tolosako Abesbatza lehiaketan parte hartzen duen taldeetako baten bisita du. Aurtengoan Adur Vocal Ensemble abesbatza norvegiarra izan genuen kultur etxeko aretoan.

Ganbara abesbatzarentzat kontzertua proba erabakiorra zen osteguneko, izan ere prestakuntzako azken kontzertua eta Euskal Herrian eskaintzen zuten lehenengoa baitzen.

Kjetil Almanning zuzendari-tapean, musika erlijiosoa eta

profanoa uztartu zuen abesbatza norvegiar taldearen ahots kalitatea erakutsiaz. Bukaeran, entzuleen txaloak eskertzeko, Julen Ezkurrearen *Aritz adarrean abestia* eskaini zuten

Adur Vocal Ensemble

15 herrialdeetako abeslariak osatutako ganbara abesbatza dugu Adur Vocal Ensemble. eta gehienak elkarrekin aritu dira munduko abesbatzean, zein produkzio desberdinetan edo zuzendari ospetsuekin lan eginez. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero



Erakusketa

MONICA CAÑÓN URSOLA margolariaren margo minimalistak ikusgai. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.

Astelehena, 3

Ipuin-kontalaria

IPUIN ZORAGARRIAK entzungai 4 eta 5 urte bitarteko haurrei zuzendua Pello Añorga ipuin-kontalariaren eskutik. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburutegian 18:00etan.

EUSKARAZ

Ostirala, 7

Kontzertua

ROUGE talde donostiarraren kontzertua, Xpression eta Gazteriak sinatutako akordioaren baitan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.



Antzerkia

"HALA MINTZATU ZAN ZAPPATRUSTA" obra Ander Lipus & Karabananen eskutik. Saio hau Topaguneko Kultur Errota egitasmoaren barruan dago. Jalgi kafe-antzekian, 22:30ean.

EUSKARAZ

Asteazkena, 5

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren saioa etxeko txikiengentzat. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ

Larunbata, 8

Antzerkia

La Baldufa teatre taldeak Baserriko saltsa antzezlanaren eskainiko du haurrentzat. Sarrera 3 euro. Kulturetxean, 18:00etan.

Palestinako diaporamak

Mikel Zinkunegi udan Palestinan izan zen brigadista moduan eta han bizitakoa ekarriko du Jalgi Kafe Antzekora. Komite Internazionalistatako kideak bertan jasotako irudiak eskainiko ditu eta bertan zuzen zuzenean ikusi duen errealitatea erakutsiko die diaporama emanaldira joango direnei. Asteazkenero bidaietako diaporamak emango dira Jalgin.

JALGIN 21:00ETAN EUSKARAZ

Asteazkena, 9

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren saioa etxeko txikiengentzat. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ

Igandea, 9

Zinea

KUNGFU PANDA filma ikusgai haurrentzako zinearen barruan. Kulturetxean, 17:00etan.

Asteartea, 11

Ipuin-kontalaria

BEATRIZ EGIZABALEK ipuin zoragarriak kontatuko ditu 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. Emanaldia, Manuel Lekuona

Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan.

EUSKARAZ

Asteazkena 12

Diaporama

OMITZ TALDEAK Oñatiko herrira, Arotz auzora eta Orkatza mendiko gailurrera duela gutxi egindako irteerako irudiak eskainiko dituzte. Asteazkenero eskainiko dira Bidaietako diaporamak. Jalgin, 21:00etan, EUSKARAZ

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

Fmko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Argazki kamara digital bat galdu zen krosek egunean

Argazki kamara digital bat galdu zen Lasarte-Oria Bai! Krosek egunean, urriaren 26an Okendo inguruan. BENQ DC E720 markako kamara bat da. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala 605 760 578 zenbakira. Sari-tuko da.

Udako Txokotako argazkiak

Aurtengo Udako txokotan ibili diren haurrei CD batzuk banatu zaizkie udako argazkiekin. Norbaitek oraindik jaso gabe badu esandako argazkien CDa, horretarako azken eguna azaroaren 7a izango dela jakinarazi nahi dute antolatzaileek. Goratu CD Ola kale 1ean dagoen Amaraun Ludotekatik pasa behar dutela argazkiekin osatutako CDa jasotzera. Ordutegia honakoa da, arratsalde, 17:00etatik 20:00etara.

Dantzaren Lagunak taldea

Erketzek entsegu irekiak aurkeztu nahi ditu Dantzaren Lagunak taldearen bidez. 15 urtetik gorakoentzat daude bideratuak eta erromeriko dantzak landuko dituzte. Beraz, plazan gogoarekin begira ez geratzeko, orain da zure aukera. Urriaren 28tik aurrera, astearteko arratsaldeko 20:00etan bilduko dira Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Zumaburuko eraikinean. Animatu!

Katxalin Elkartearen loteria

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkarterako izango da. Loteria hau eroste-

ko interesa dutenek KIUBn egin dezakete, Ganbo kalean.

Lasartearra elkartearen loteria

Lasartearra elkarteak, bazkie eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Eroste-koa asmoa duenak elkartearen egin dezake astelehenetik ostiralera 18:00aurrera abenduaren 7a arte, hau barne.

Oztanbide elkartearen loteria

Oztanbide auzo-elkarteak eguberritako loteria salgai jarri duela jakinarazi nahi du: 43.607 zenbakia. Hiru eurotako partizipazioak (loteria: 2,5 euro eta emaria 0,5 euro) Txema tabernan (Andapa kalean, Zumaburua) eta Coviran supermerkatuan (Ozتان emparantzan) erosi ahal izango dituzue. Edozein zalantza argitzeko, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonoetara deitu dezakezue.

Aerogazte

Astelehen eta asteazkenetan, 17:15ean, aerobikeko eskolak ematen dira 14 urtetik beherako neska-mutilentzat, Udal Kiroldegiko aretoan. Gaztetxoek gogoko duten jarduera alai eta dibertigarria da aerobica. Erritmoaren eta musika-kadentzien bidez, giza-harremanak eta osasuna garatzen eta hobetzen dituzte. Begirale tituludun eta aditu batek koordinatu eta animatzen du, koreografia ugariarekin, musika eguneratu eta dibertigarri, eta asmo bakar honekin: ondo pasatzea, eta ahalegin handiegirik gabe, ariketa fisiko atsegina egitea

Aquarobic

Modalitata fisiko berri honen eskolak Udal Kiroldegiko Igerilekuan ematen dira, astearte eta ostegunetan, 9:15etik 14:15era. Aquarobic urretako gimnasia egitean

datza, musikaz eta ikasleen beharretara egokitutako ariketak lagundua. Uretan egindako aerobica balitz bezala da. Edozein adin, genero eta mailatako pertsonen ur-ingurune batean egin dezaketen jarduera da, igerileku ez oso sakoenean hain zuzen ere. Aerobicaren bidez errendimendua handitu daiteke besoak, hankak eta enborra erabiltzen diren kiroletan. Prestakuntza-modu ezin hobea da, baita ere, gorputzaren goiko atalen esku-hartzea eskatzen duten jarduerak profesionala garatzen dutentzat. Ur-ingurune batean txikiagoa da lur-zoruarekiko talka, eta ondorioz, txikiagoa artikulazioen gaineko tentsioa.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Leiendetatik abiatuz, bere kontaketa eta gogoetak egin ditu Martin Anso bere bigarren liburuan. Ele zahar gisa denetik jaso du gainera, idazleak: herri ipuin, pasadizo historiko, hiri kon-daira, ...

Denetarikoa kontuak dira, gai, garai edota protagonistei dagokionez, besteak beste maitasuna, mendekua, sexua, ... Erdi-arroan, Amerikako konkistan, karlistaldietan edota gerra zibilean gertatuak, hainbat pertsonaiari: zakur errepublikarra, euskal odoleko erregina guantea, Donostiako herensugeak, olagarro erraldoia, Santa Kruz apaiza, bikingoak, ilargiko gizona, ... Euskal Herrian kokatutako istorioak dira, pare bat kasutan izan ezik. Kanpoko bi leienda jaso ditu Anso, baina Euskal Herriarekin lotutakoak. Esaterako Aretxabala koronela-ri buruzkoa berez Nikaraguko da baina protagonistak euskal jatorria duenez, bilduman sartu du. Aretxabalari buruzko lehen berriak, Ger Velasquez aspaldi Lasartera ezkonduetako nikaraguarrek eman zizkion idazleari.

Bere erara kontatu ditu Martin Anso gaur egungo begirada batekin. Eta istorioei tonu litarioa eman badio ele zahar horiek janzteko izan da, hau da, kontakizuna edo literatura beti egon da istorioen zerbitzura, "istorioak dira garrantzia dutenak edo politak direnak" adierazi du.

Bere erara

Kazetaria da, Martin Anso: La Voz de Euskadin hasi zen lanean, Eginen aritu zen itxi zuten arte eta Garan gero duela gutxi arte. Egunkari honetan hasi zen leienda edo istorio hauek idazten eta orduan argitaratutakoekin osatu zuen liburu honen aurrekaria den "Elezaharren gordelekuak" bilduma. Orain "libreago" ibili dela sentitzen du autoreak, ez du egunkari eta bere irakurlearen gogoetara

Leienda zaharren idazketa berria egin du Martin Anso kazetariak

- "Ele zahar, ele berri", liburuan Euskal Herriko 38 leienda bildu ditu.
- "Elezaharren gordelekuak" bildumaren jarraipena da. ■ Oraingo eta hemengo begiradarekin idatzi ditu garai eta molde ezberdinetako istorioak.

Euskal Herriko 38 leienda bildu ditu "Ele zahar, ele berri" liburuan Martin Anso Lasarten bizi den kazetari donostiarrak. Kontuak ez dira oso luzeak, oro har laburrak eta irakurtzeko errazak dira, gehienak ez dira oso ezagunak eta umore apur batekin gozatu ditu: "askori umore puntu bat gehitu diet. Izan ere, nik ez ditut legendak bere horretan erreproduzitu, baizik eta nire erara, jakina, eta, gehienetan, orain eta hemen finkatutako begirada batetik, esango nuke. Nolabait, istorio zaharren irakurketa berria egin dut. Horra tituluaren zergatia: "Ele zahar, ele berri".



ere", baina bestela edonorentzat modukoak dira. Beraz, 14-15 urtetik gorakoentzat gomendagarria da liburua.

Argia kobazuloan

Bestalde liburuaren amaieran leienda bakoitza sortzeko erabili dituen iturriak bildu ditu autoreak istorio, pertsonai edo elezaharretan gehiago sakondu nahi dutenentzat. Banan banan azaldu ditu kontaketa bakoitzaren nondik norakoak. Martin Anso berak aitortzen du "atal hau ere ez da derrigorrez irakurri behar, baina jakin-mina duenak bitxikeria bat baino gehiago aurkituko dituela uste dut".

Martin Ansoaren iritziz, "Elezaharretan, altxor bat dauka Euskal Herriak, altxor hori, neurri handi batean, kobazulo baten ilunpean gordeta bada ere. Liburu honen bidez, kobazuloan sartu eta horko hainbat bitxi argizatzen saiatu naiz, ondo pasatzea eta, ahal balitz, ondo pasaraztea helburu bakartzat hartuta. Kobazuloaren barrunbeetan arakaten bere kabuz jarraitu nahi duenak beharbada liburu bukaerako atal hori erabil dezake lastagi moduan".

makurtu beharrik izan eta nahi zuena egiteko aukera izan du, leiendak bere erara idaztekoa eta horien inguruan gogoetak proposatzekoa.

Autorearen ustez gazteen gustukoak izango dira istorioak "erakargarri, sarri umoretsu, labur eta inguru-minguririk gabe azalduak direla kontuan

izanik". Haurrentzat egokiak ez diren gertaera batzuk badira liburuan, "urkamenduak, bortxaketa-saioak, saldukeria, lizunkeria... are antropofagia

‘Aspalditik dut ele-zaharren inguruko zaletasuna’

Donostiarrak da Martin Anso, Amara Berrikoa, baina aspaldi, (duela 15 bat urte) etorri zen Lasarte-Oriara. "Gure semea da hemengoa; ni, nahiz eta urte pilo bat hemen pasa dudana, oraindik ez naiz ausartzen nire burua lasarteartzat jotzera".

Nondik datorkizu aspaldiko istorio eta ele zaharren inguruko zaletasun hau

Aspalditik datorkit, neuk ere ez dakit nondik. Idaztera pausoa Garan eman nuen: azken orrialdea birmoldatzen ari zirela, orduan zuzendari zen Mertzxe Aizpuruak esan zidan "aizu

eta zergatik ez dituzu idazten astean behin Euskal Herriko leiendak, baina ez denok ezagutzen ditugunak, baizik eta zuk dakizkizun horietakoak, -tarteka kontatzen nuen bakarraren bat eta ezagutzen zituen. Ez nion ezetz esan, mordoxka bat bildu genituen, eta gerora jarraitu dut. Euskadi Irratian ere beste leienda batzuek kontaktu nituen hamabostean behin. Batzuk hor erabiliak dira.

Bada beste bat "Itsasoaren mendekua", izenekoa, bildumako azkena. Horrekin, "Lasarte Oriako IX Literatur Lehiaketa" irabazi nuen duela urte batzuek. Hori da litera-

rioena. Beste batzuk udara honetan bertan idatziak dira. Denetik dago.

Istoriorik ba al da Lasarte-Oriaran bertan kokatzen denik?

Lasarte bertakoak ez, baina gertukoak badira, Santueneakoak. Bi leienda dira, bata Santa Kruz apaiza Lasartetik barrena Txikiertatik Aia aldera zihoala, gaur pasatzera San Estebanen geratu zen, muinoan, eta

Lutxana erregimendua paraloan Oria bestaldetik zetorren. Santa Kruzek ez zuen izkillu eta su arma askorik, besteak aldiz ondo hornituak zetozen, baina zubia pasa behar. Zubia da leienda horren gakoa.

Eta leienda honekin lotuta bada beste bat gerra zibil garai-koa, egi berdadero gisa kontatu zidatena. Faxistak gero eta gertuago zeuden eta euren abantzea eragozteko bolborazko

kartutxoak jarri zituzten zubian, gehiegi hurbiltzen baziren lehertzeko prest. Gertatu zen, gaearen karlisten alde zen base-rritar batek bolbora kartutxo horiek busti egiten zituela, guztiak azken begikoak izan ezik, horiek zaindarien gertuegi zeuden eta gehiegi ez zuelako arriskatu nahi. Etorri zirenean lehterazari zuten zubia baina bakar bakarrik begi hori erori zen, busti gabeko kartutxoak zituena eta oztupo txikia izan zen, berehala gainditu zutena. Horiek dira hemendik gertuen gertatu eta jasotakoak. •

“ Elezaharretan altxor handia du Euskal Herriak. Liburuaren bidez hainbat bitxi argitaratzen saiatu naiz.

Jon ALTUNA